

JARRAIBIDEEN ORRIA/ BIGARREN ARIKETA

Irakurri arretaz jarraibide hauek. Garrantzitsuak dira ariketa garatzeko

EZ IDATZI EZER ABISUA EMAN ARTE.

- Proba egiten den bitartean, NAN edo AIZ (NIE) mahai gainean egon behar du. **Debekatuta dago mugikorrek piztuta edukitzea – ezta “hegazkin/hegaldi moduan” (modo avión) ere, nahiz eta gordeta egon. Ezta transmisore edota hartzaile gisa erabil daitezkeen edozein elementu ere.** Hori antzemanaz gero, arau-hauslea berehala kanporatuko da. Emisio erradio elektrikoak detektatzeko sistemak erabiltzeko aukeraz ohartarazten da.
- Instalazioan **erloju bat dago ikusteko moduko leku batean.**
- Proba egiten den bitartean, **isiltasun osoa** mantendu behar da. Jokabide desegoki batek edo gainerako pertsonen enbarazu egiten diren jokabideak esparrutik kanporatzea ekarriko du.
- Ariketa egiteko denbora amaitutakoan, ERANTZUN-ORRIAK jasoko dira. **Zure lekuan egon abisua eman arte.**
- **Ariketa hasteko eta/edo amaitzeko jarraibideak ez betetzeak proba ez zuzentzea ekarriko du.**

BIGARREN ARIKETA

- Gehienez **2 ordu** dituzu aukeratu beharreko kasu praktiko bat idatziz garatzeko, ariketa egin baino lehen epaimahaiak proposatutako bien artean.
- Mahai gainean, NANA, idazteko tresnak eta jarraibideen orri honetaz gain, honako hau eduki beharko du:
 - Gutun-azal handi bat
 - Gutun-azal txiki bat
 - Identifikazio-datuak betetzeko fitxa bat, eta
 - Bilbao Ekintzak erraztutako orri espezifikoak eta
 - Bilbao Ekintzak emandako laguntza-dokumentazioa
- Proba honen zuzenketa **anonimoa** da, eta beraz, **EZ DA IDENTIFIKAZIO PERTSONALIK JASO BEHAR AZTERKETA-ORRIETAN.**

EZ SINATU EZER, ETA EZ IDATZI IZEN-ABIZENAK GUTUN-AZAL TXIKI ETA HANDIETAN.
EZ SINATU EZER, ETA EZ IDATZI IZEN-ABIZENAK PROBA EGITEKO FOLIOETAN.
- Idatzi kartoi mehearen fitxan zure datu pertsonalak eta hautatzen ari zaren plaza. **EPAIMAHAIK ADIERAZTEN DIZUNEAN**, kartoi mehea sinatu eta gutun-azal txikian sartu, daukan itsasgarriarekin itxi eta gutun-azal handian sartu.
- Idazten diren zigilatutako folioak bi aldeetatik zenbatu. **FOLIO HORIETAN ZURE IZENA ETA SINADURA EZ DUTE JASOTA EGON BEHAR.**
- Ariketa egiterakoan, **utzi tarte zuri nahikoa orri-ertzetan**, fotokopiatzerakoan informaziorik gal ez dadin zuzentzeko orduan.

OSO GARRANTZISTSUA:

- Kasu praktikoa deialdiari erantsitako gai-zerrendako zati espezifikoan jasotako gaiekin zerikusia izango du (19tik 30era bitarteko gaiak, biak barne).
- Ariketa egiteko, izangaiek ezin izango dute dokumentaziorik ekarri. Epaimahaiak kasu praktikoa egiteko beharrezko dokumentazioa eta araudia emango ditu.

Bigarren ariketa zuzentzeko irizpideak:

Aukeratutako egoera kasu praktikoa garapena gehienez 20 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 8 puntu lortu beharko dira gainditzeko, honako irizpide hauen arabera:

1. Arrazoitzeko gaitasuna: GEHIENEZ, 3 PUNTU.
2. Ondorioak planteatzeko eta formulatzeko sistematika: GEHIENEZ, 4 PUNTU.
3. Araudi aplikagarria ezagutzea eta behar bezala interpretatzea: GEHIENEZ, 13 PUNTU.